

Herriaren alde dena emanda joan da Martin Ugalde

[Egile ezezaguna]

Berría, 2004-10-05: 8.

Euskal Herria eta euskara. Martin Ugaldek argi izan zuen beti bere bidea: herrigintza eta euskalgintza, eta horren lan egin zuen bere bizi guztian, atzo, 82 urte zituela, hil zen arte.

Abertzalea. Kazetari, idazle eta politikari gisa jardun zuen, maite zuen herriaren alde. Espainiako gerrak behartuta utzi zuen Andoain, eta Venezuelan erbesteratu. Gertaera haiek markatu zuten Ugalderen bizitza. Venezuelan oso kazetari ezaguna izan zen. Familia osatu zuen han, baina 22 urteren ondoren, 1969an, Euskal Herrira itzuli zen. Hurrengo urteetan etengabea izango da haren lana: isila, baina eraginkorra. *Deia* egunkariaren sorreran parte hartu zuen; Leizaolaren ondoan kontseiluari, eta Garaikoetxearen gobernuan Euskarazko Arazoetarako zuzendari; idazle gisa ipuingintzan nabarmenduko zen; eta 1990ean bere proiektu kutunenetako bat gauzatzea lortuko zuen: euskara hutsezko egunkaria. *Euskaldunon Egunkaria*-ko Administrazio Kontseiluko lehendakaria izan zen, ohorezkoa ere bai.

Azken urteotan hainbat sari eta merezimendu jaso ditu, baita injustiziak jasan ere, *Egunkaria*-ren ixtearekin batera. Hartutako bidea ez baitzen erraza izan, baina duintasunez egin zuen beti aurrera. Haren izena eta izana jasotzen duen Martin Ugalde kultur parkean omenaldia egin zen atzo; gaur, hileta elizkizunak izango dira Hondarribian.